

DONOSTIAKO TURISMO BULEGOEN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, Donostiako turismo bulegoetarako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Udalbatzaren Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2016ko urriaren 17ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurtengo udan Gipuzkoako Foru Aldundiak turismo bulego berri bat ireki du Donostian; Donostia Turismoren egoitza nagusiaren ondoan, hain zuzen ere. Bere eginkizuna Gipuzkoako informazio turistikoaren banatzea omen da. Hau da, bulego batean turistek Gipuzkoako informazioa ematen diete eta bestean, soilik Donostiakoa. Agian norbaitek ez daki Donostia Gipuzkoa dela; haren hiriburua, zehatzago? Donostia Gipuzkoa kontuan hartu gabe uler al daiteke? Ulergaitza dena ez du inork ulertzen. Gainera, bi instituziotan PNV-PSE koalizioa gobernatzen ari da. Diru publikoa xahutu aurretik ezin al da akordiorik egin?

Gure interpelazioak horrela zioen eta zinegotzi-ordezkariek gaiari heldu ez zionez, honako KONTROL MOZIOA aurkezten dugu.

MOZIOA

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio instituzioen arteko akordioak lor ditzala turismo bulegoen zerbitzu bikoizketa eta antzeko zentzugabekeriak errepika ez daitezen.

Donostia, 2016ko urriaren 21a

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia